


# Lurraldeak ekonomia solidariorik abiatuta eraldatzea

# 30

proposamen 2015eko maiatzaren 24ko udal eta  
foru hauteskundeetarako



**reas**  
**euskadi**

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea  
red de economía alternativa y solidaria

[www.economiasolidaria.org/reaseuskadi](http://www.economiasolidaria.org/reaseuskadi)

2015eko maiatzaren 24an izango diren udal eta foru hauteskundeak direla-eta, REAS Euskadik (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) ezagutzera eman nahi die alderdi politiko, gizarte-eragile eta herritarrei, oro har, zer ekimen proposatzen dituen lurraldeak toki politikaren eremuan eraldatzeko, ekonomia solidarioaren irizpideetatik abiatuta, betiere.

Lurralde horietako ekonomiak pertsonen, guztion ongiaren eta bizitzaren iraunkortasunaren zerbitzura egon behar du. Lurralde horiek berriro definitu beharko dute beren garapen eredia, eta gizarte zuzen eta inklusiboago batera eta gizartearen eta ingurumenaren alorrean iraunkorragoa izango den gizarte batera bideratu beharko dute eredu hori.

Oinarrizko printzipio horietatik abiatuta, udal eta foru erakundeetan parte hartuko duten alderdi eta hauteskunde-erakundeei eskatzen diegu bere egin ditzaten honako proposamen hauek.

## Denen ongiaren zerbitzura jardungo duen kudeaketa gauzatzea

*Gure ustez, erakundeek guztion ongiaren sustapenean oinarritutako neurriak bultzatu behar dituzte, nola beren kudeaketaren bitartez hala eskura dituzten tresnen bitartez. Erakundearen beraren funtzionamendua tresna eraginkorra bihur daiteke, bai eta gizarte mailako beste politika publikoak ugaltzeko tresna ere; bestalde, erakundea demokratizatu eta herritarren zerbitzura jarriko du.*

- 1.** Herritarrei eta gizarte-erakundeei politika publikoen identifikazioan, kudeaketan eta ebaluazioan parte hartzeko aukera emango dieten eremuak sustatzea.
- 2.** Erakundeen kudeaketa ekonomikoari buruzko kontu-ikuskaritza publikoak eta parte-hartzaileak sortzea eta kontrolerako eta gardentasunerako tresnak bermatzea.
- 3.** Aurrekontu publiko parte-hartzaileak osa daitezen sustatzea, herritarrek beraiek eta gizarte-erakundeek gastuen eta inbertsioen edukietan eta lehentasunetan eragiteko.
- 4.** Gizartearen kohesioa eta inklusioa bultzatzeko lehentasunezko alorrak sendotzea, politikaren, teknikaren eta aurrekontuen ikuspegitik: oinarrizko errentak, gizarte-politikak, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, etab.
- 5.** Iruzzurrari aurre egitea eta zerga politika progresiboagoa eta birbanaketan oinarrituagoa garatzea, gizartearen kohesioa eta babesa bermatzen duten zerbitzuei eusteko moduan.

6. Gizartearen ikuspegitik arduratsuak izango diren erosketa publikorako neurriak garatzea, halako eran non zerbitzuak eta produktuak kontratatzean lehentasuna emango zaien irizpide sozialei, etikoei eta ingurumenaren alorrekoiei: gizarteratzearekin eta lan munduan txertatzearekin, ingurumenaren iraunkortasunarekin eta hurbiltasunezko zirkuituekin zerikusia duten gizarte-klausulak, irabazi asmorik gabeko eta ekonomia sozial eta solidarioan oinarritutako erakundeei laguntzea, aukera berdintasunean oinarritutako politikak eta merkataritza zuzena bultzatzea, lan-baldintza duinak bermatzea, etab.
7. Ekonomia sozial eta komunitarioa garatzeko, onura soziala bultzatzea, landalurren eta gutxiegi erabilitako hiri-eremuen espekulazioaren aurrean.
8. Ekimen publikoetatik merkataritza zuzena eta hurbiltasunezkoa bultzatzea, bai eta komertzializazio zirkuitu laburrak ere.
9. Finantza etikoen kooperatibetan erakunde bazkide gisa parte hartzea, besteak beste, Fiare Banka Etikoan, eta lehentasuna ematea horien zerbitzuen erabilerari, banku konbentzionalen aurrean.
10. Energia berriztagarrien sorrerako eta komertzializazioko kooperatibetan, hala nola, Goiener-en, erakunde bazkide gisa parte hartzea, eta lehentasuna ematea horien zerbitzuen erabilerari, multinazionalen eta irabazi asmoko enpresen aurrean.
11. Ekonomia solidarioko lurraldeen eraikuntzarekin konpromisoa duten udal erakundeen sarea sustatzea, eta, bereziki, partzuergoetan eta udalen artean laguntza sareak finkatzea hainbat sektoretan, hala nola, energiaren, finantza etikoen, elikagaien subiranotasunaren edo kontsumo arduratsuaren sektoretan.

## **Ekonomia berria sustatzea, garapen alternatibora iristeko**

*Erakunde publikoek badute lurralde baten jarduera ekonomikoaren eraldaketan eragiteko modua, jarduera hori birkokatuko duten eta ekonomia sozial eta solidarioko irizpideetan oinarritutako diren zuzeneko zein zeharkako ekintzen bitartez. Horrekin guztiarekin, tokiko giza garapenaren alorreko estrategiak eta jardunak bultzatu nahi dira.*

12. Ekonomia sozial eta solidarioko enpresentzako eremuak sortzea edo eraldatzea: lokalak uztea, coworking eremuak, izaera sozialeko enpresa poligonoak..., eta eremu publikoak merkataritza sozialeko azokak eta ekonomia solidarioko beste ekimen batzuk antolatzeke erabil daitezzen uztea.

- 13.** Ekonomia-ekimen alternatiboek aholkularitza, prestakuntza eta laguntasun zerbitzuak ematea, bai enpresa berriak sortzeko bai beste enpresa batzuk birmoldatzeko, ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren formulen bitartez.
- 14.** Ekonomia sozialaren eremuan ekintzailtza bultzatzeko abal-funtsak eta laguntza finantzarioak sortzea, hala nola, zerga pizgarriak aplikatzea ekimen ekonomiko sozial eta solidarioetan.
- 15.** Ekonomia sozial eta solidarioko enpresak sustatzea ezegonkortasun handiko jarduera sektoreetan (zaintzak, hondakinen kudeaketa, etab.).
- 16.** Enplegu inklusiboa sustatzea, gizarte-bazterketa jasaten dutenen edo jasateko arriskua dutenen lan prestakuntzarako jardueren bitartez, programa publikoetan eta enpresa pribatuetan kontratatzekeo pizgarriak ematea, gizarteratzeko enpresak sustatzea, etab.
- 17.** Ekintzailtzekeo programetan eta tokiko garapen plangintzetan emakumeen premia praktikoak eta interes estrategikoak txertatzea, emakumeek kalitatezko enpleguetarako aukerak izan ditzaten eta lanaren banaketan berdintasuna egon dadin, bai lan produktiboari bai lan erreproduktiboari dagokienez.
- 18.** Jarduera ekonomiko sozial eta solidarioa bultzatzea, ondare eta zerbitzu komunak era komunitarioan eta kooperatiboan kudeatu daitezkeen bultzatuz.
- 19.** Tokiko ekonomiaren zirkuitu alternatiboek garapena sustatzea eta bultzatzea, eta, horretarako, ekonomia sozial eta solidarioko azokak bultzatzea, hurbileko elikagaien azokak berreskuratzea eta sustatzea, etab.
- 20.** Tokiko ekonomia solidarioaren barruan trukeerako eta sustapenerako modu berriak garatzea, eta, horretarako, besteak beste, gizarte-txanponak sustatzea, denbora bankuak eta truke azokak bultzatzea, kolaborazioan eta kooperazioan oinarritutako kontsumoa sustatzea, etab.
- 21.** Ekonomia solidarioko ekimenak sustatzeko kanpaina publikoak bultzatzea: gizarte-merkatua eta kontsumo arduratsua, finantza etikoak, kontsumo kooperatibak (energia, elikadura, nekazaritza ekologikoa...), bai eta paradigma ekonomikoa aldatzeko premiari buruz herritarrak sentsibilizatzekeo kanpaina publikoak ere.
- 22.** Erakundeetako langile teknikoak eta politikoak ekonomia solidarioari buruz sentsibilizatzea eta prestatzea, eta politiken eta plan publikoen bitartez hori bultzatzeko gidak prestatzea.

## Gure lurraldea eta ingurumenaren iraunkortasuna zaindu dadin

*Ekonomia solidarioak paradigma aldaketa bat proposatzen du, bizitzaren iraunkortasuna jarduera ekonomikoaren erdigunean kokatzeko. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, trantsizioko ekimenen sustapena eta ingurumenaren iraunkortasunean eta lurraren eta landa-eremuaren babesean oinarritutako politika publikoen garapena.*

5

- 23.** Ingurumenaren alorrean sentsibilizazio eta heziketa programak garatzea.
- 24.** Ikuskaritza energetikoa bultzatzea, etxeetan, industrian eta alor publikoan kontsumoa arrazionalizatzeko plan bat osatzeko.
- 25.** Subiranotasun energetikoa sustatzea energia garbiak sortzeko eta kontratatzeko proiektu publikoen bitartez, energia berriztagarrietarako inbertsio komunitarioko proiektuei laguntza finantzarioa eta teknikoa ematea, eta energia horien banaketa eraginkorra antolatzea eta kontsumoa murriztea.
- 26.** 0 hondakin gisako politikak, gaikako bilketa prozesu zorrotzagoak, hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena areagotuko dutenak, onartzea, eta horien kudeaketan ekonomia sozial eta solidarioko enpresei lehentasuna ematea.
- 27.** Uraren kultura berri baten paradigma geureganatzea, uraren kudeaketa publikoaren oinarri gisa eta iraunkortasunaren eta guztion ongiaren babesaren irizpideetatik abiatuta, uraren kudeaketa pribatizatzeko eta/edo erabilera espekulatiborako prozesu oro geldiaraziz.
- 28.** Lurraldearen zaintza eta babesa bultzatzea, eta, horretarako, lurraren erabilerari dagozkion eredu iraunkorragoetan eta ez espekulatiboetan oinarritutako plangintza tresnak baliatzea, ekosistemak babestea, basoen kudeaketa egokia egitea, larreak berreskuratzea eta zaintzea, bertako haziak babestea, transgenikorik gabeko lurraldeak aitortzea, etab.
- 29.** Tokiko nekazaritza jarduerak berreskuratu daitezzen bultzatzea, eta, horretarako, landa-eremuko langileak instalatzeko pizgarriak baliatzea, pertsona gazteen prestakuntzarako plangintzak eta lurren bankuak sortzea, baratze komunitarioak sustatzea, etab.
- 30.** Tokiko produktuen eta produktu ekologikoen banaketa, merkaturatzea eta kontsumoa sustatuko duten politikak sustatzea, elikaduraren alorreko subiranotasunaren irizpideetatik abiatuta. Irizpide horiek onartzea elikaduraren kudeaketan, baliabide publikoetan (etxeak eta egoitzak, ikastetxeak, etab.).